

3. SAIOA

ESPARRU ESTATISTIKOA

Iñigo Arteche

Behatokiaren egiturazko lehenengo zeregina **esparru estatistikoa** zehaztea da.

Kontzeptu horren barruan hiru errealitate hauek daude:

- **Behaketa-eremua mugatzen duen eredu kontzeptuala.**
- Behaketa-esparru bakoitzean kudeatu beharreko **oinarrizko adierazleen sistema**: esparru estatistikoaren matrizea.
- Adierazle horien oinarrian dauden eta **Kulturaren Programa Estatistikoa** osatzen duten informazio-iturrien egituraketa.

1.- BEHAKETA-EREMUAREN DEFINIZIOA: EREDU KONTZEPTUALA

Behaketa-eremua mugatzeak karga kontzeptual handia du, printzipio batzuk zehaztea eskatzen baitu. Hala, ikuspegi estatistiko eta kulturaletik zer neurtu/aztertu daitekeen definitu behar da, eta, aldi berean, erabiltzen diren eremu estatistikoaren koherentziarekin eta erabilgarritasunarekin bateratu behar da ikuspuntu hori; eremu estatistikoaren kontzeptuekin, definizioekin, taxonomiekin eta normalizatutako azterketa/sailkapen kategoria ezagunekin, hain zuzen ere.

Behatokiaren lehenengo ekitaldian egindako lanen bidez, gai hori landu duten herrialdeetako esperientziak berrikusi dira. Lan horiei esker, gai hori landu duten bi erreferentzia aurkitu dira: batetik, Quebeceko eredu kontzeptuala eta, bestetik, EBK – EUROSTAT– termino estatistiko-terminologikoei buruz egiten duen bateratze-lan dinamikoa.

Quebeceko ikuspuntua eta EUROSTATek ezarritako irizpide metodologikoak —EBko kultura-jarduera zehazteko eta kultura-estatistika bateratuak eraikitzen joateko— bateratuz, Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera, hau da **kultura-sektorearen HELBURUA**:

“Jarduera edo proiektu estetikoetan eta komunikatiboetan egindako sormen-lanaren bidez sortutako ekoizpen sinbolikoa, ordezkatu ezin diren produktuak edo zerbitzuak sortzen —eta eskubideak sor ditzakeena— eta edukiak eta interpretazioak etengabe berritzen dituen”.

Sektorearen helburu horren barruan daude:

- **EKOIZPEN-EREMUAK (azpisektoreak eta jarduera-adarrak), eskaintza-produktu-eskari/erabiltzaile** eskemaren barruan **egituratuta** daudenak:

- 1º Kultura-eskaintza** osatzen dute **KULTURA-JARDUERAREKIN** lotutako balio-katearen mailetan dauden enpresa-establezimenduek eta langileek: **Sorkuntza, ekoizpena eta banaketa/erakusketa.**
- 2º Produktua** da kultura-jardueraren emaitza.
- 3º Eskariak** kultura-produktuaren kontsumitzailearen edo erabiltzailearen eta kultura-praktika aktiboaren eragilearen ikuspegi jasotzen du. :

Hiru eremu horiek bi ikuspegi osagarri hauetatik behatzen dira:

Fisikoa: Establezimenduak, enpleguak, output-ak... zenbatu eta ezaugarritzea, hainbat irizpideren arabera (jarduera, tamaina, lurraldea, kontratua, irizpide soziodemografikoak...)

Ekonomikoa: Jarduera zenbatzea eta ezaugarritzea (sarrerak, gastuak, mobilizatutako eta sortutako baliabideak...)

Hala ere, **kultura-objektu** horren barruan, ez daude soilik goian adierazitako EKOIZPEN-EREMUAK, baizik eta **EREMU ERREGULATZAILEAK** ere. Kultura-helburu horren zerbitzura dauden jarduera-eremuak dira, balio-kateko beste kate-maila batzuk osatzen dituztenak eta ekoizpen-eremuetako jarduera garatzeko baldintzak sortzen dituztenak. Horiek gabe ezin dira ulertu sektorearen izateko arrazoia eta kulturaren ekonomia-kontzeptua. **EREMU ERREGULATZAILE** horiek hiru azpisektoretan egituratu dira: **Prestakuntza eta ikerketa**; sektorearen **antolamendu publikoa** (politika instituzionalak, kulturaren arloko gastu publikoa...); eta **antolamendu pribatua** (elkarteen gremio-egitura, eskubideen kudeaketa...)

EKOIZPEN-EREMU eta EREMU ERREGULATZAILEEN kultura-jarduera gaztelaniaz zein euskaraz egiten da, eta, gero eta gehiago, elementu teknologiko berriak erabiltzen dira. **Bi ikuspegi horiek —linguistikoa eta teknologikoa— eremu horien zeharkako arlo gisa hartzen dira.**

Azkenik, EKOIZPEN-EREMUEN ETA EREMU ERREGULATZAILEEN behaketa lurraldean gauzatzen denez, behaketarako **LURRALDE-EREMUAK** sortzen dira.

Aurrez definitutako **KULTURA-OBJEKTUAREKIN** lotutako **EKOIZPEN-EREMUAK, EREMU ERREGULATZAILEAK** eta **LURRALDE-EREMUAK** bateratuta, **BEHAKETA ESTATISTIKOKO ESPARRUA** osatzen da. Esparru hori eskema honen bidez irudika daiteke, gutxi gora-behera:

KULTURA-BEHAKETAREN EREMUA

EREMU ERREGULATZAILEA			EKOIZPEN-EREMUA						
Trebakuntza za Ikerketa	Antolamendu publikoa	Antolamendu pribatua	SEKTOREAK ETA AZPISEKTOREAK			ESKAINNTZA			
			Sorkuntza	Ekoizpena	Hedapena/erak.	PRODUKTUA	ESKAERA/ERABILTZAILA		
Hezikuntza arautua	Administrazioa: Europa	Elkarte sektorialak						Ondarea	Museoak
				Artxibategiak					

			Liburutegiak Ondare-ondasunak			
		Adierazpen artistikoa	Arte eszenikoak eta musikalak Antzerkia Musika Dantza Ahozko tradizioa	Fisikoa Enpresak Establezimenduak Langileak Azpiegiturak Ekonomikoa Garatutako jarduera Baliabide metatuak	Fisikoa Kuantifikazioa Ezaugarriak Ekonomikoa Salmentak	Fisikoa Ohitura kulturalak Ekipamendua Praktika kulturalak Ekonomikoa Kultura-gastua
		Kultura-industriak	Arte bisualak . Ikus-entzunezko industria (zinema eta bideoa) eta multimedia Argitalpen-industria (liburuak) IND. Fonografikoa IND. Eskulangintza			
		Komunikabideak	Irratia eta telebista Aldizkako argitalpenak			
		Beste zenbait jarduera	Bestelako sormen-jarduerak Arkitektura Diseinua Publizitatea Jarduera eta produktu osagarriak Arte grafikoak Musika-tresnak Soinu eta irudirako euskarriak eta gailuak Turismo kulturala			
Euskara – Kultura digitala: (Hizkuntzaren eta teknologiaren zeharkako perspektiba)						
LURRALDE-EREMUA						

2.- OINARRIZKO ADIERAZLE-SISTEMA ETA INFORMAZIO-ITURRIAK:

ESPARRU ESTADISTIKOAREN MATRIZEA

Aurrez behaketa-eremua eta eredu kontzeptuala definitu ondoren, esparru estatistikoak bigarren lan-ildo hau jarri du martxan: behatutako sektore/azpisektore bakoitzeko oinarrizko **adierazleak** eta adierazle horiek elikatuko dituzten **informazio-iturriak** identifikatzea.

Bi elementu horiek gurutzatzean, definitutako behaketa-eremu bakoitzaren taula osatzen da. Taula horri **esparru estatistikoaren matrizea** deitzen zaio. Aztertutako kultura-esparru bakoitzeko ibilbide-orria edo ildo nagusiak adierazten ditu matrize horrek. Izan ere:

- ekoizpen-eremuak (eskaintza, produktua eta eskaria/erabiltzailea) eta eremu erregulatzailerak ezaugarritzen dituzten **oinarrizko adierazleak** identifikatu eta definitzen dira.
- adierazle horiekin lotutako **informazio-iturriak** —zuzenak edo inkesta bidezkoak zein zeharkakoak edo administratiboak— aipatzen dira.
- **Programa estatistikoa**: hainbat urtetarako egiten den plana da, zeinean egin beharreko estatistikak, horien maiztasuna eta informazio-ziklo oso baten barruko artikulazioa definitzen den, kultura-behaketarako esparrua sakon aztertu ahal izateko.

3.- KULTURA-PROGRAMA ESTADISTIKOA

Deskribatutako oinarri horien gainean, Behatokiak dagoeneko martxan jarri du Programa estatistikoa: *hainbat urtetarako egiten den plana, zeinean egin beharreko estatistikak, horien maiztasuna eta informazio-ziklo oso baten barruko artikulazioa definitzen den, behaketa-esparrua sakon aztertu ahal izateko.*

Asmo handiko programa horrek hiru behaketa-ziklo hauek hartzen ditu kontuan:

- a) EKOIZPEN-EREMUA: ESKAINTZA.** Sektore eta azpisektoreetan bilatu beharreko informazioarekin lotua: sektore eta azpisektore horietako enpresa-establezimenduak; langileak; kultura-ekoizpenerako azpiegiturak; egiten duten jarduera; metatutako baliabideak; ekoizpenaren kuantifikazio eta ezaugarritze fisikoa eta ekonomikoa...

Behaketa-eremu zabal eta kasuistikoena da. Izan ere, kultura-azpisektore bakoitza eta azpisektore bakoitzean egiten diren jarduerak dimentsionatu eta ezaugarritzen dira. Horrela, atea irekitzen da kultura-sektoreak beste sektore ekonomiko-produktibo batzuen estatistikekin homologatzeko. Eremu bakoitzeko jarduera-eredu orokorraren bidez —**sektoreko estatistika**— hau lortu nahi da:

- Ekoizpen-eremu edo sektore/azpisektore bakoitzeko urteko jarduerari segimendua egiten zaiola bermatzea —denbora errealean—: **Urteko aurrerapena**

- Bi edo hiru urtean behin kulturako ekoizpen-eremu edo sektore/azpisektore bakoitzaren deskribapen sakona egitea: **Kontu sektorialak**.
- Bi edo hiru urtean behin, euskal ekoizpen-sarearen barruko "kultura" osorik "neurtzea", urteko kontuak gehituz: **Kulturaren kontu sateliteak**

Taula honetan duzue eskaintzaren ekoizpen-eremuaren lan-programa, laburtuta:

Sektoreko OINARRIZKO DATUEN AURRERAPENA urte honetan SEKTOREKO KONTUAK urtearen amaieran	ONDAREA	KULTURAREN KONTU SATELITEAK (Gehitutako kontu sektorialak)
	Liburutegi eta artxibategiei buruzko estatistika	
	- Liburutegien modulua - Artxibategien modulua	
	Museoei buruzko estatistika	
	Administrazio-erregistroak ustiatzeko plana:	
	- Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroa - Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusia	
	ADIERAZPEN ARTISTIKOA	
	Arte eszeniko eta musikalei buruzko estatistika	
	- Antzerkiaren modulua - Musikaren modulua - Dantzaren modulua - Ahozko tradizioaren modulua - Arte bisualen modulua	
	KULTURA-INDUSTRIAK	
Kultura-industriei buruzko estatistika		
- Ikus-entzunezkoen eta multimedien modulua - Modulu fonografikoa - Argitalpenen modulua - Artisautzaren modulua		
KOMUNIKABIDEAK		
Komunikabideei buruzko estatistika		
- Irratiaren eta telebistaren modulua - Aldizkako argitalpenen modulua		

Kultura herrikoari buruzko estatistika (kultura-jarduera ez-profesionala)

- b) EKOIZPEN-EREMUA: ESKARIA.** Herritarrek kulturari buruz duten portaerari buruzko informazioa biltzen da, alegia, kultura-kontsumorako ohiturak eta kultura-praktikak: zer, zenbat, noiz, nola... kontsumitu eta/edo praktikatzen den kulturaren alor bakoitza: musika, antzerkia, dantza, literatura, zinema, artisautza, arte plastikoak, museoak eta abar.

Lan-prozesu horretan, eragiketa estatistiko nagusi bat zehaztu da: **Kultura kontsumitzeko ohiturei eta kultura-praktikei buruzko estatistika**. Ziklo luzeko —3 eta 5 urte bitartean— aldizkako estatistika-eragiketa da. Estatistika hori bateragarria da urtero edo bi urtean behin egiten diren "mikropanel" segimendu-eragiketekin. Deskribatutako ikuspegia osatzen dute segimendu horiek.

- c) EREMU ERREGULATZAILEA:** Arlo hauekin lotuta dago: batetik, kultura-antolamendu publikoko hainbat maila instituzionalekin (politika publikoen diseinua eta kudeaketa, balioespen soziala, sostengua eta finantziazioa...);

bestetik, sektoreko antolamendu pribatuarekin elkarte- eta korporazio-egituren bidez (egituraketa eta ordezkari kolektiboa, pizgarri lehiakor eta dinamizatzailea, eskubideen kudeaketa...); eta, azkenik, prestakuntzarekin eta ikerketarekin.

Eragiketa estatistikoaren bidez, administrazio-erregistroak ustiatuz edo bihurtuz horiek konbinatuz gauzatuko dira etorkizuneko lan-ildoak: **kulturaren finantziario publikoa; kulturaren arloko gastu pribatua; hezkuntza eta ikerketa; prestakuntza ez-arautua; kulturaren erabilera; kultura identitarioa: euskara eta kultura.**

Eztabaidarako zenbait gai

1. Kontzeptu-ereduaren garrantzia behaketaren ikuspegian. Dakartzan baldintzatzaileak

- ➔ Zer behatu? Kulturaren behaketa 'mugako' jarduerak direla eta: produkzio-jarduera osagarriak, ezinbestekoak kultura-sormenerako (musika-tresnen fabrikazioa, materialen elektronikak...), kultura-produkzioarako (arte grafikoak...), edo kontsumorako (kontsumoko elektronikak, CDak...). Turismo kulturala, aisiaren industriarekiko muga...
- ➔ Nola behatu? Sektorearen begirada klasikoa eta clusterraren edo balio-katearena (sormena/produktzioa/banaketa/erakusketa) elkarren aurka: baldintzatzaileak.
- ➔ Aukerak eta ondorioak, lurraldeen arteko konparazio estatistikoari dagokionez.

2.- Estatistika-esparrua garatzeko desafioak:

- ➔ Jarduera ekonomikoaren kodifikazio tradizionalak eta kultura-sektorerako duten balioak. Aukerak eta mugak

3.- Kulturaren neurketa, sektoreetako deskribapen-adierazleetatik landa:

- ➔ Adierazle sintetikoak, adierazle erantsiak: Superadierazleak?
Ebaluazio-adierazleak